

## Itzulpengintza

### 1. ZER DA ITZULTZEA

Lehenengo gai honetan, zuen burua **aurkezteaz** gain, itzulpengintzaren gaineko testu bat irakurri eta **ondorioak aterako** dituzue. Gainera, testu labur bat **itzuli** eta irakaslearen feedbacka jaso eta gero, itzulpen originalarekin alderatu, eta **berritzuliko** duzue. Bukatutakoan, ikaskideek botatakoak ikusita, hainbat **ondorio** aterako dituzue elkarrekin.

### 2. HITZ-ELKARKETAK

Bigarren gai honetan, **itzulpen egokiaren urratsak** errepasatu eta praktikan jarriko dituzu. Horretaz gain, ohikoenak diren **erroreak** lantzen hasiko zara. Bigarren honetan, adibidez, **hitz-elkarketak** eta **aditzaren posizioa** landuko dituzu.

### 3. PUNTUAZIOA LANTZEN

Hirugarren gaien **puntuazioaren erabilerrari** helduko diozu. Aurrekoetan bezala, testu bat **bitan itzuliko** duzu, eta horretarako, ikaskideekin batera osatutako **akats-zerrenda** erabiliko duzu.

### 4. ERLATIBOAREN ERABILERA

**Deskripzio labur** batzuk itzuli eta zuzendu ostean, **puntuazioa** landuko duzue, baita **erlatiboaren erabilera egokiaren** aholku zerrenda osatu. Azkenik itzulpenak **berridatziko** dituzue, unitatean landutakoak kontuan hartuta.

### 5. GERUNDIO OKERRAK

**Egunkarira idatzitako gutun** bat itzuli eta zuzendu ondoren, **sortutako zalantzak** konpartituko dituzu ikaskideekin. Horretaz gain, **erdal gerundioa** modu egokian euskaratzeko moduak landuko dituzu eta baita **letra larriak** erabiltzeko arauak ere.

### 6. ERDARAKADAK

**Txosten luzea** itzuliko duzu ikaskideekin. Horri lotuta, **testuak arintzeko teknikak** eta, batik bat, **erdarakadak** lantzeko hainbat ariketa egingo dituzu. Azkenik denon artean egindako itzulpena zuzenduko duzu.

### 7. GENERO-IKUSPEGIA

**Udaletxe bateko plegua** itzuliko duzue, eta horixe izango da ikastaro honetan egingo duzuen azken itzulpena. **Bikoteka** egin beharko duzue itzulpena, beraz, **hitz-ordu** pare bat egin beharko dituzu ikaskideren batekin lana burutu ahal izateko. Horrekin batera, **genero-ikuspegia** landuko dugu unitate honetan. Azkenik, ikastaroan egindakoak **errepasatu** eta ikastaroaren **balorazioa** egingo duzu.